

Zaldibiako organistak

Jose Mari Iztueta Etxeberria

- Zaldibian jaio zen, 1779/01/01ean.
- Zaldibian hil zen, 1805/03/03an.
- Juan Ignazio Iztuetaren anaia zen.

Martin Jose Jauregui Albisu-Irrib

- Zaldibian jaio zen, 1789/03/18an.
-
- Jose Mari Iztuetaren ondoren izendatu zuten organista.

Ramon Ignazio Jauregi Ormazabal

- Zaldibian jaio zen, 1822/12/05ean.
- Zaldibian hil zen, 1892/11/30ean.
- Udaleko idazkaria eta organista izan zen.

Ponciano Zubeldia Goia

- 1877/11/19an jaio zen Abaltzisketan.
- 1941/12/10ean hil zen Zaldibian (64 urte).
- Ordiziako edo Beasaingo fraideetan egin zituen oinarrizko ikasketak eta musikakoak.
- Zaldibiako Udaleko idazkaria eta organista izan zen. Abaltzisketan ere organista izan zen 1901ean (500 erreal ordaindu zioten), (Seminarioa 1009/001-00).
- On puska bat omen zen, jende askori eman omen zion laguntza Zaldibian (horrela dio bere ilobak).

Konstantino Lizarralde Garmendia

- Gaintzan jaio zen, 1916/04/12an.
- Donostian hil zen, 2001/11/12an.
- Seminarioan egin zituen ikasketak; musika ere han ikasi zuen.
- Gerra garaian, Ebroko batailara eraman zituzten, eta erabat desengainatuta geratu omen zen; han erabaki zuen apaizgintza uztea.
- Frontea utzi eta azterketa ofizialak egitera etortzeko baimenarekin etorri zen.
- Gerra ondoren, berriro soldadutza egin behar izan zuen, beste 3 urte.
- Bilbon Administrazioako titulua atera zuen, eta 26 urterekin lortu zuen Udal-Idazkaritzarako titulua.
- Zaldibia eta inguruko herrietako Udaletako idazkaria izan zen.
- Zaldibiako eta, zenbaitetan, inguruko beste herrietako organista izan zen, 34 urtez (Gaintza, Legorreta...).
- Soinu handia jotzen ere bazekien.
- Gaintzan maisu egon zen eta soldadutzan ere bai.
- Joxe Mari Ormazabalen, inguruko herrietako organista eta idazkaria izandakoaren, oso laguna zen.
- Tenerifera joan zen, eta han 4 urte eman zituen.
- 60 urterekin, Gipuzkoara itzuli eta Anoeta-Irurako idazkaria izan zen beste 3 urtez.
- Jubilatu ondoren, Donostiako Artzain Ona katedraleko koruko kidea izan zen, Jose M^a Zapirain apaizaren zuzendaritzapean.

Manuel Etxeberria Sukia

- Zaldibian jaio zen, 1922/12/17an.
- Zaldibian hil zen, 1993/07/26an.
- Seminarioan ikasi zuen musika. Lehenengo, Arantzazuko frantziskotarretan egin zituen 4 urte, eta gero, Gasteizen amaitu zuen apaizgintza.
- Egon zen lekuetan organista izan zen: Ekuadorren egon zen lehenengo; Ataun S. Gregorion egon zen ondoren; Zaldibian hurrena, organista moduan, eta Beasainen ere egon zen zahar etxeko kapilau eta organista.
- Erlojuak konpontzea asko gustatzen zitzaion.
- Zaldibian lan asko egindakoa: antzerki saioak, zine-emanaldiak. Ataunen ere zine-emanaldiak izaten zituen, Zaldibian bezala, igandetean, eta handik hona ibiltzen omen zen makinaren arazoak konpontzen.
- Txistulari taldea sortu zuen: Jose Manuel Galarraga Mendizabal, Arizkorreta, Patxi Etxeberria, Inaxio Mendizabal....
- Gobernu Zibilera ere eramane omen zituzten, kide horietakoren bat euskal doinuren bat jotzen ari zela auzokoek salatuta, baina gozokiak emanda bidali zituzten.
- Honela dio Joxe Zufiaurrek “Beasaingo musikak” liburuan:

Etxeberria apaiz jn., Zaldibiarra berez, eta hark ordezkatu zuen On Kaletano, bai Ospitaleko Kaperautza eta baita Organo-jole plazan ere.

On Manuel Etxeberria jn., Zaldibian jaio zen 1922an. Apaiz egin ondoren, Bizkaiko Dima egon zen eta handik Ibasondoko Urki auzora etorri zen.



Manuel Etxeberria jn.

Urki auzoan zegoela, misioetarako deia sentitu zuen eta Los Rios-eko Elizbarrutiko Misioetara joan zen Ekuadorrera. Mekanikarako ere zaletasun handia zuenez, ezagutza horiek oso ondo etorri zitzaizkion misioetan. Egia esan, berari baino gehiago bere Ekuadorreko eliztarrei, apaizaz gainera doako mekaniko eta garralaria zutelako.

Bere “indiotxoekin” egindako bidaletako batean, kamioi txikiaren transmisioa hondatu zitzaizen aldapan behera zihoazela. Gelditu eta matxura konpontzeko gurpilen tartean sartu zen, baina zorte baxa izaki, gurpilei eusteko jarritako euskarrietako batek huts egin eta ibilgailua bere kasa abiatuta aldapan behera joan zen, On Manuel aurreko aldean liburu bat ixten den moduan tolestuta.

Oso larri zaurituta egon zen eta bere jaioterrira, Zaldibiara, itzuli behar izan zuen osatzeko, baina hala ere bizitza guztirako ajeak gelditu zitzaizkion. Behin baino gehiagotan entzun izan genion bizkarrezurreko ornoak min handia emanaz banaka-banaka beren lekuetatik ateratzen sentitzen zituela. Ibiltzeko moduan jarri zenean, Zaldibian bertan gelditu zen parrokiako apaiz-lanetan eta geroago handik Ataungo San Gregoriora lekualdatu zuten.

Ataunen, arimaren batzuk konpontzeaz gainera, baserrietako paretako erloju zahar asko konpondu eta berriro ere abian jarri zituen. Bere etxeko garbarak, batzuetan, antzinako erloju zaharren biltegia zirudien.

On Manuel Etxeberriak, bere aurreko organo-joleak bezalaxe, bi karguak bete zituen hil aurreko egun gubi batzuk arte eta 71 urterekin hil zen 1993ko uztailaren 26an, 13 urtez organo-jole eta Ospitaleko Kaperau jardun ondoren.

Xalbador Garmendia Etxeberria

- Zaldibian jaio zen, 1932/09/20an.
- 1942an, Sakramentinoetara joan zen. Martin Gorostidi (Amezketza) eta Casimiro Eguesekin (Helduaian) ikasi zuen, 6 edo 7 urtez.
- 14 urterekin, Sakramentinoetako nobiziaduko organista izan zen.
- Iruñera joan zen filosofia egitera eta han ere organista izan zen.
- Gero, Villarora joan zen eta han ere organista lana egin zuen.
- 21 urterekin, Erromara joan zen ikastera eta han ere organista izan zen (3 urte).
- Tolosara itzuli zen eta, Benito Iparragirre hil zelako, musika kontu guztiaren zuzendari jarri zuten: koruko zuzendari, haurrei irakasten, pianoa irakasten... 5 urte egin zituen horrela.
- Iruñean eta beste leku batzuetan ibili ondoren, Donostiara itzuli zen eta Antiguako Elizan jotzen zuen organoa.
- 44 urterekin ezkondu egin zen M^a Dolores Mujikarekin, Anoetan jarri zen bizitzen eta horko elizan jotzen du organoa, eta etxean pianoa egunero.
- 1968 inguruan, koru bat sortu zuen Zaldibian. Horrekin batera txistua, gitarra... irakasten zieten haurrei, berak antolatu egiten zuen eta maisuak ekartzen zituen, dohain. Txistua Beasaingo Txanbok, gitarra beste batek eta Xalbadorrek solfeoa irakasten zien. Hori dena larunbatetan eta igandetan egiten zuten. Zaldibiako lan hori utzi egin behar izan zuen, ezkondu eta urte betera-edo, egunkariko lanagatik. Beste batzuek jarraitu zuten.
- Anoetan zaharren korua zuzentzen du, eta ateratzen dira kantatzera, Eguberrietan, Santa Ageda egunean eta San Juan bezperan.
- Konstantino joan zenean, Zaldibian ere jotzen zuen organoa.

Franzisko Lasa Odriozola

- Garinen (Beasain) jaio zen, 1940/04/23an.
- Tolosako Sakramentinoetan egin zituen ikasketak eta han ikasi zuen musika ere, pianoa jotzen eta orduan komentuan zegoen harmoniuma jotzen. Geroz, bere kabuz ikasi omen du dakiena.
- Goierriko parrokia askotara joaten da organoa jotzera: Ataungo hiru parrokietara, Beasaingo hiru parrokietara, Zaldibiara...
- Honela idatzi zuen Jose Zufiaurrek "Beasaingo Musikak" liburuan, Franziskori buruz:

On Manuelen ondoren, Andre Mariaren Parrokiako Organo-jole kargua, Garinen jaotako Franzisko Lasa Odriozola jnak du.

1971n sortu zenetik Loinazko San Martinen Parrokiako organo-jole kargua izan du eta 1993tik, herriko bi parrokietako organo-jole karguak ditu.

Franzisko Lasa jn., Garingo Garin-arrebetz baserrian jaio zen 1940an.

Lanbidez garralari autonomoa da eta ezkondu Beasainen kalean bizitzen jarri ondoren, On Kaletano zenari eta On Manuel zenari askotan lagundua da ordezkatzat egiten edota hileta bat baino gehiago suertatzean.

Franzisko Lasa jnak 1950.eko hamarkadan egin zituen piano-ikasketak Tolosako Sakramentinoen barnetegian Aita Iparragirrearekin. Hainbat urte geroago Manuel Yaben soinu-irakasle jn.aren ikasle izan zen Beasaingo Loinazko San Martin ikastetxean.

Azken hogeita hamar urte hauetan, bi lanbideak betetzen jakin izan du eta ez Beasaingo parrokietan bakarrik, baita Garin, Arriaran, Astigarreta, Ormaiztegui, Itsaso, Zaldibia eta Ataungo hiru parrokietan ere hileta-elizkizunetan eta herri edo auzoetako jai nagusietan ere organoa jo izan du.

Urte askotan zehar, Beasainen Gabon egunez Oñentzerorekin kalera irten ohi den koruaren Zuzendari izan da.

Egunkizun horietan guztietan egin behar bikoitzak batera gertatzen zaizkionean, hiletak batera parrokia desberdinetan, etab., Zegaman jaio eta Beasainen urte asko bizitzen daramatzan Amaia Urkizu Kerejeta andak ordezkatzen du Beasainen.

Aitor Garmendia Irastortza

- Zaldibian jaio zen, 1968/03/11n.
- Ingeniaritza Tekniko ikasketak egin.
- Manuel Etxeberriarekin hasi zen musika ikasten. Solfeoa, harmonia eta pianoa jotzen Ordiziako eta Beasaingo Musika Eskoletan ikasi zituen.
- Txistua jotzen ere ikasi zuen, Zaldibian.
- Urte askotan, Zaldibiako parrokiako organista izan zen.